

2011ko apirilaren 28a, Lan-Osasunaren Eguna BILBO, La Esperanza frontoia

Zer onartzen da “elkarrizketa soziala”k emaitza onak dakartzala esanez gero? Bada, jateko guztia aurrez banatuta dagoen mahai batera esertzeko gonbitea. Ez da ogi-papurrik ere geratzen. Erabakitzen dutenek (patronalak eta gobernuek) itxura egin nahi dute, “guztion artean” erabakitzen dela sinestarazi. Baina Elkarrizketa Soziala inoiz ez da gaur bezain hutsa izan, eta politika dagoen monduan –erabat enpresa-munduaren menpean– oso larria da sindikatu batzuk babesa ematea.

Zer onartu behar da mahai horretan?

1. Azken 35 urteetako AURREKONTUrik injustuenak: Enplegua suntsitu eta zerbitzu publikoei erasotzen dieten aurrekontuak. Lan-osasunerako ekarpena %45 murrizten dute. Hori ote da lan-osasunarekiko duten kezka?
2. ALDEBAKARREKO ERREFORMA LABORALA. Erreforma horrek eskubideak kentzen dizkigu, askoz lotuago egiten gaitu eta enpresaburuen boterea areagotzen du. Erreforma horrek prekarietatea handitzen du. Eta askatasun eza, prekarietate handiagoa, osasunaren kalterako da.
3. PENTSIOen ERREFORMAk erretiro adina atzeratzen du eta asko eragozten du pentsioa lortzeko modua. Neurriok bizi-kalitatea okertzen dute, baita lan-osasuna ere.
4. GIZARTE-BABESaren murrizketa (langabezia, gizarte-laguntzak). Murrizketen helburua edozein lan-eskaintza onartzera bortxatzea da... Gauza agerikoa da: Laguntza publikoak gutxitu eta edozer onartzera behartu. Horixe da “enpleabilitatea”.
5. EUREN HIZKUNTZA. Bai, hizkuntza ere aldatu egiten dute, manipulatu. Klasea eta sindikatua ordeztan lan-eskua eta gizarte-eragilea aipatzen dituzte; lan duinaren ordeztan, enpleabilitatea;

eskubideak eta botere sindikala ez dituzte ahoratu nahi, baina bai malgutasuna eta laguntza...

6. LATZA, EZ? Dena berdin da... "Elkarriketa soziala"k balio du.

HEMEN ESPAINIAN eta NAFARROAN gertatzen dena lortu nahi dute: JOKO-ARAUEK horretarako traba egiten diete. Arau demokratikoak aintzat hartzea gogaikarria da. Horregatik Jaurlaritzak, CONFEBASKEk, CCOOek eta UGTk erabaki dute ez dela joko-arau demokratikorik izango, Espainian eta Nafarroan bezalaxe. Parte hartzeko erakundeek beren politikak babes ditzaten nahi dute. Horregatik ez dituzte ARAU DEMOKRATIKOAK errespetatzen. Izan ere, ez baitzaie komeni. Ezta OSALANen ere.

Patronala, espainiar sindikalismoa eta Lopez bat datoz hainbat gauzetan:

1. Lan-Harremanen eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparruaren kontrakoak dira. Lan-harremanen eredu espainola esparru guztietara hedatu nahi dute. Hori ez omen da politika egitea, guk egiten baitugu, euren arabera.
2. Elkarriketa Soziala finantzatzeko iturri bihurtzen dute. Krisi honetan zalantzan jarri ez den puntu bakarra da hau. Begira bestela Kontuen Auzitegiak esan duenari: dirua ordezkartzaren arabera banatzen da, eta ez gauzatutako egitasmoen arabera.

ZEINTZU DIRA BERE EMAITZAK? Erabat hustu dutelarik, zabor-kontratuak DIRU PUBLIKOz finantzatzea erabaki dute. Bai, enpresek gizarte-segurantzako kuotarik ez dute ordainduko aldi baterako lanaldi partzialeko kontratuetan.

ETA LAN-OSASUNEAN? Esandako guztiaz gainera, hau gehitu behar zaio...

- Berdin da LAN-AGINTARITZAK ikuskapenik ez egitea, ez arauhauste laboralak zigortu gabe uztea. Lan-Agintaritzak egiten uzten die.
- MUTUALITATE eta ENPRESEN arteko KONPLIZITATEA gaixotasunak eta istripuak ezkutatzeko. Sistema zital batek saritu egiten ditu arauak "betetzen" dituzten enpresak, eta ondorioz istripuen berri

ez ematera bultzatzen ditu. Gainera, ondo asko dakigu gauza bat dela ezbeharrak ez salatzea eta beste bat, ez gertatzea.

- **MUTUALITATEEN JOKABIDEA:** senda-agiria ematen diete lanera joateko moduan ez daudenei, sistemak berak defentsarik gabe uzten baitu langilea. Lanera joatea beste aukerarik ez dago, arrastaka joan behar bada ere. Honetaz gure zerbitzu juridikoek zerbait badakite.
- **ERAIKUNTZAKO HITZARMENAK.** Adibide honek auziaren alde guztiak biltzen ditu. Hitzarmena besterik gabe ez da aplikatzen. Interes ekonomiko eta politikoak elkar aditzen dira. Herri-lanen esleipena, eraikuntzako enpresak, azpikontrata ugari, amairik ez duten lan-egunak, istripu larriak, hildakoak eta soldata miserableak. Langile asko egunero 12 orduz jarduten da, orduko 7 euroren truke. **Nori axola zaio hau?** Ez gobernuei, ezta aldundi edo patronalari ere... Guztiekin bildu gara eta ez zaie axola beharrean dagoen jendea esplotatzea enpresek dirua erruz irabaz dezaten.
- Zer egin dute **ERAIKUNTZAKO TXARTELA**ekin? Auzitegiek legez kanpokotzat jo zuten. Baina beren akordioetan ezinbesteko ikusten dutena aldatuagatik, asmo berari eusten diote: Jendea ezertarako balio ez duen txartel bat lortzera behartu nahi dute, euren monopolioa eta finantzazioa bermatzeko. Txartelaren helburua ez da lan-osasuna, finantzatzea baizik.

CONFEBASKek argi asko esan zuen: “Bazen garaia lan-osasuna gatazkagai izateari uzteko”. Ez dago zergatirik, ez ardurarik ere.

- Guztia **EGURALDI**Aren moduko kontu bat bailitzan.
- Azken argazkia, **LAN-OSASUNEKO PLAN ESTRATEGIKOA:** Esaldi lausoz betea, kontinuismoa besterik ez du islatzen. Aurreko gobernuaren politika berberak. Betiere, patronalari enbarazu egingo dion ezer ez. Errepikatu beharra dago: Itxura egin nahi dute, pentsa arazi guztiok ardura eta interes berdinak ditugula.

GURE EGITEKOA... Lan-osasunaren galerak eta istripuek, gehienbat, prekarietatearekin eta lan-baldintza okerrekin daukate zerikusia... Eta jatorria hori bada, administrazioaren eta enpresen erabakiek hortik jo

beharko lukete. Baita gure erabakiek ere, noski. Lan-osasuna ezin da deskausalizatu. Arduragabekeria sindikala litzateke.

Zer egin behar dugu guk? Lehentasuna EKINTZA SINDIKALARI eman.

- Lan-osasuna EKINTZA SINDIKALEan sartu. Ez soilik pankarta bat izan dadin zoritxarrez baten bat bere lanpostuan hiltzen denerako.
- SALATU egin behar da gobernuen utzikeria eta KONPLIZITATEA.
- Egin dugun agiriko 8. puntuak gurekin dauka zerikusia: enpresetako ekintza sindikala, lan-osasunak berriro lehentasunezko lekua izan dezan.
- Eta, noski, negoziazio kolektiboa, prekarietatea gutxitzea aldarrikatzeko, eta osasunari kalte egiten dioten eta istripuak eragiten dituzten zergatiei aurre egiteko.
- Negoziazio kolektiboaren tresna daukagu. Ekintza sindikala ere badaukagu.

“Elkarrizketa Sozial”eko mahaiak gobernuen politika onetsi eta patronalak lan-osasunaz duen ikusmoldea sustatzeko daude. Beraz, guri bide bakarra geratzen zaigu, Ekintza Sindikala.

Adolfo Muñoz “Txiki”
ELAko idazkari nagusia

Bilbon, 2011eko apirilaren 28an